



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

**Gizarte Zientziak Lehen Hezkuntzan: Diziplinaren funtzionaltasuna,
metodologia eta motibazioari buruzko lan empirikoa**

Egilea: Sara Fernández Fernández

Zuzendaria: Iratxe Gillate Aierdi

Leioan, 2016ko maiatzaren 27an

A U R K I B I D E A

Sarrera.....	4
1.Esparru teoriko eta kontzeptuala.....	5
1.1.Gizarte Zientzien irakaskuntza: hurbilpen kontzeptuala eta historikoa.....	5
1.2.Gizarte Zientzien irakaskuntza: irakaste-metodologiak eta XXI. mendeko erronkak.....	7
1.3.Gizarte Zientziekiko motibazioa: irakasleengan eta ikasleengan garatu beharreko ezinbesteko gaitasuna.....	9
1.4.Egungo ikasleen iritzia Gizarte Zientzien irakaskuntzaz: ikerketarako aurrekariak.....	11
2. Atal Enpirikoa.....	13
2.1.Helburuak eta hipotesia.....	13
2.2.Pate-hartzaileak.....	14
2.3.Ikerketa-aldagaiak.....	14
2.4.Neurtzeko tresna.....	15
2.5.Datuen analisisa.....	15
3. Emaitzak.....	16
4. Ondorioak.....	22
4.1.Gizarte Zientzien hezkuntza-praktikarako gomendioak.....	22
4.2.Zailtasunak eta ikerketarako bide berriak.....	24
5. Erreferentzia Bibliografikoak.....	26

Gizarte Zientziak Lehen Hezkuntzan: Diziplinaren funtzionaltasuna, metodologia eta motibazioari buruzko lan enpirikoa

Sara Fernández Fernández

UPV/EHU

Umea gizarte baten barnean bizi den momentutik, izaki soziala da. Lehen Hezkuntza etapako helbururik nagusienetarikoa umeen garapen integrala izanda, ikasleei bizi diren gizartearen partaide kritiko eta aktiboak izaten lagundu behar zaie, Gizarte Zientziak horretarako laguntza-tresna eraginkorra izan daitezkeelarik. Horregatik, Gizarte Zientzien irakaskuntzaren historiari eta egungo erronka metodologikoei hurbilpen bat egin ondoren eta ikasleak Gizarte Zientzien funtzionaltasuna identifikatzearen garrantzia ikusita, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasle-talde batek eskolako Gizarte Zientzien funtzionaltasuna, irakaste-metodologia eta motibazioaren inguruan duten iritzia ezagutzeko ikerketa bat diseinatu egin da. Ikerketa horren emaitzak kontuan hartuz, Gizarte Zientzien irakaskuntzaren premia nagusiak identifikatu dira eta hezkuntza-praktika hobetzeko zenbait gomendio zehaztu dira.

Gizarte Zientziak, funtzionaltasuna, metodologia, motibazioa, Lehen Hezkuntza

El niño es un ser social desde el momento en el que vive dentro de una sociedad. Siendo el desarrollo integral de los niños/as uno de los objetivos principales de la Educación Primaria, es necesario ayudar al alumnado a ser participantes críticos y activos de la sociedad, pudiendo ser las Ciencias Sociales una herramienta eficaz para conseguirlo. Por ello, una vez realizado un acercamiento a la historia de las Ciencias Sociales en la escuela y a los retos actuales de las mismas, y en vista de la importancia de que el alumnado identifique la funcionalidad de aprenderlas, se ha diseñado una investigación para conocer la opinión de un grupo de alumnos de sexto curso de Educación Primaria acerca de la funcionalidad, metodología y motivación de las Ciencias Sociales en la escuela. Teniendo en cuenta los resultados de dicha investigación, se han identificado las necesidades más importantes y se han diseñado una serie de recomendaciones para mejorar la práctica educativa en las Ciencias Sociales.

Ciencias Sociales, funcionalidad, metodología, motivación, Educación Primaria

The child is a social being from the moment in which he lives inside a society. Taking into account that the integral development of children is one of the main objectives of Primary Education, it is necessary to help students become critic and active citizens of the society in which they live, and the Social Sciences can be an effective tool to achieve this. For this reason, once that an approach to the history of the Social Sciences in school and their current challenges is made, and in view of the importance that the students identify the functionality of learning them, it has been designed an investigation to know the opinion of a group of students from the sixth grade of Primary Education about the functionality, methodology and motivation of the social sciences in the school. Regarding the results of the investigation, there have been identified the most important needs and, with them in mind, some recommendations have been designed in order to improve the teaching practice in the Social Sciences.

Social Sciences, functionality, methodology, motivation, Primary Education

Sarrera

Las ciencias sociales deben plantearse como experiencias científicas de humanidad, útiles para afrontar retos del presente. Los saberes sociales, históricos y geográficos son tanto o más útiles y funcionales que cualquier otro, en tanto en cuanto inciden en la formación de una ciudadanía con criterio, el activo más importante al que debe aspirar cualquier comunidad (Hernández Cardona, 2002:8).

Hernández Cardonaren esaldi honek bikain laburtzen du lan hau egitera bultzatu duten arrazoiak. Norbanakoak komunikatzeko eta besteekin erlazionatzeko behar dituen erremintak eta baloreak eskuratzearen premia argi izanda, ezin da ukatu gizakiaren alderdi soziala. Hau da, gizakia izaki soziala da jaiotzetik, gizarte baten barnean bizi baita. Hortaz, ezin dugu ahaztu zein izan behar den hezkuntzaren helbururik nagusia, hots, gizartearen garapenari lagunduko dioten herritar kritiko, parte-hartzaile eta solidarioak heztea. Baina helburua hain argi badago, zergatik egungo gazteen artean, baita gizarte osoan ere, gizatasunik eta parte-hartzerik eza gero eta nabarmenagoa da? Hernández Cardonak (2002) Gizarte Zientzien irakaskuntza arazo horretarako irtenbide gisa planteatzen du. Halere, konponbidea eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa izango da hezkuntza prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek norabide berean arraunean egitea. “Baina, zein norabidean?” izango litzateke hurrengo galdera. Gizatasunaren berreskuratze prozesuari ekin egiteko lehenengo pausua, bidea egingo duten guztiek (adituak, hezitzaileak, ikasleak, familiak...) “nora, zertarako eta zelan arraun egin?” galderen erantzun bateratua eraikitzea izango litzateke. Izan ere, azken galdera horiek izango dira lanaren ardatzik nagusienetarikoa, Lehen Hezkuntzako ikastetxe bateko seigarren mailako ikasleek Gizarte Zientzien irakaskuntzaren xede, funtzionaltasun, metodologia eta motibazioaren inguruan duten iritzia ikertzeari eta ondoren, iritzi horietan oinarritutako hezkuntza-praktikarako zenbait gomendio eraikitzeari ekin baitzaio.

Gradu Amaierako Lan honetan, ikasleak euren ikaste prozesuaren eraikitzaile bihurtzen saiatzen da, euren iritzi eta ahotsari espazioa emanez. Ikerketa eta ikerketaren emaitzetatik ondorioztatutako hezkuntza-praktikarako gomendioak ume talde konkretu batzuetan izan dute abiapuntua. Izan ere, ikerketa Bilboko ikastetxe kontzertatu bateko seigarren mailako ikasleekin egiteko diseinatu egin da. Halere, ikerketatik ondorioztatutako gomendioetan konproba daitekeenez, Gizarte Zientzien irakaskuntza gidatzeko baliagarriak izan daitezkeen ideia orokorrak dira. Horrek,

Lehen Hezkuntzako beste gela eta mailetan aplikagarria izatea ahalbidetuko luke, beti ere ume-taldearen beharrezkoak egokituz.

Ondorengo orrialdeetan aurkezten den Gradu Amaierako Lana lau atal nagusitan banatuta dago. Lehenengo partearen helburua lan enpirikoari oinarri teorikoa ematea izango litzateke. Bigarren partean, aurretik aipatutako lan enpirikoaren diseinua aurkezten da. Azkenik, ikerketaren emaitza nagusiak eta emaitzetan oinarrituz, ikasle horiei Gizarte Zientzien funtzionaltasuna ikusten eta jarrera positibo eta parte-hartzailea garatzen laguntzeko gomendio batzuk azaltzen dira.

1. ESPARRU TEORIKO ETA KONTZEPTUALA

1.1. Gizarte Zientzien irakaskuntza: hurbilpen kontzeptuala eta historikoa

“La idea de que podemos reflexionar de forma inteligente sobre la naturaleza de los seres humanos, sus relaciones entre ellos y con las fuerzas espirituales y las estructuras sociales que han creado, y dentro de las cuales viven, es por lo menos tan antigua como la historia registrada” (Wallerstein,1996:3).

Gizarte Zientzien presentzia hezkuntza munduan hasiera-hasieratik oso nabarmena izan da. Hau da, ezin dugu eskolari buruz hitz egin Gizarte Zientziei buruz hitz egin gabe, hezkuntzaren historian zehar maila eta intentsitate diferentetan izan bada ere, beti Gizarte Zientziak hezkuntza eztabaidaren barne egon baitira. Baina, zer dira Gizarte Zientziak? Gizarte Zientzien arloan edozein motatako lan enpiriko edo pedagogikoa aurrera eraman nahi izanez gero, ezinbesteko galdera da hori. Izan ere, Gizarte Zientzien definizioak zer ikertu, zertarako ikertu eta nola ikertu baldintzatuko du. Oinarrizko Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duen dekretuan (testu moldatua) honela definitzen dira Gizarte Zientziak barne hartzen dituzten alderdiak:

“ikasleek beren munduaren errealitatea hobeto ezagutzeko beharrezkoak diren ezaguerak, trebetasunak eta jarrerak (...), alderdi fisikoak, sozialak zein kulturalak barnean hartzen direla, eta baita iraganeko eta egungo esperientzia kolektiboak ere, eta gizartean dagoen bizimoduaren espazioa ere kontuan hartuta; (...)” (Eusko Jaurlaritzak, 2010:533).

Aurreko definiziotik Gizarte Zientzien aniztasuna deduzi dezakegu. Baina, beti errespetatu egin da zientzia hauen aniztasuna hezkuntzan? Zientzia guztiek presentzia eta garrantzi bera izan dute hezkuntzaren historian zehar? Argi dago bi galdera horien

erantzuna ezezkoa izango dela, eta are gehiago Lehen Hezkuntzari buruz ari bagara. Izan ere, Gizarte Zientziek beti izan dute “etsaia” oso hurbil, bai hezkuntzan bai gizartean bertan, Natur Zientziak bere ondoan egon dira eta. “Etsaia” hitza erabiltzeak botere edo nagusitasun lehiaketa sinbolizatzen ditu. Baina, bi zientziek ez zioten lehiaketa edo gatazkari hasiera eman, bi zientzia horiek eraikitzen zituzten zientzialariek eta adituek baino.

1663an Hooke-k idatzitako Royal Society elkartearen estatutuetan Natur Zientzien nagusitasun hori nahiko argi islatzen da, elkarte honen helburu nagusia hurrengoa izanda: gauza naturalen eta esperimentazioari esker sortutako asmakarien garapenaren alde lan egitea; morala, politika, metafisika eta ezaugarri enpiriko hain argiak ez zituzten zientzia guztiak alde batera utziz. Beraz, zientzien aditurik nagusienetarikoak osatutako elkarteak ezarritako bereizketa ikusita, ez da harritzekoa hezkuntza munduan urte askotan zehar Natur Zientziek izandako espazio pribilegiatua (Wallerstein, 1996). Beste modu batean esanda, momentu historiko bakoitzeko korrante ideologiko eta pedagogiko nagusiak, euren indarrez baliatuz, Gizarte Zientzien presentzia baldintzatu ez ezik, diziplinaren barnean zer irakatsi, zertarako irakatsi eta nola irakatsi galderari erantzun bat eta bakarra eraikitzen eta zabaltzen ahalegindu ere egin dira (De Camilloni, 1994). Aurreko fenomenoaren errealitatea bihurtzen zen, historian zehar hezkuntza-bidea arautu duen legerik gorenean, Curriculum-ean, hain zuzen ere.

El curriculum escolar es un espacio en el que están en juego cuotas de poder que tienen diferentes agencias y agentes y, por lo tanto, es un acto político, además de técnico-pedagógico. (...). Decimos que este proceso es un acto político-técnico-pedagógico, ya que están en juego diferentes concepciones de mundo, de hombre, de sociedad y de opción de futuro. El proceso es político porque se da al interior de un contexto social, económico, cultural y educacional, en el que se involucran intereses, tendencias, historias y posiciones ideológicas y pedagógicas, de agencias y agentes diversos que hacen valer sus argumentos y criterios recurriendo a las cuotas de poder simbólico que poseen (Magendzo eta Toledo, 2009: 140).

Hortaz, Gizarte Zientziek hezkuntza formalean historikoki izan duten presentzia ezagutu nahi badugu, nahitaezkoa egingo zaigu curriculum desberdinak aztertzea. Gradu Amaierako Lan honetan azaltzen den lan enpirikoa Lehen Hezkuntzan oinarritzen denez, hezkuntza-etapa horretako curriculumetan zentratuko da analisisa. Asko izan dira historian zehar estatuko hezkuntza-sistema arautu duten legeak eta ezinezkoa izango litzateke guztiak aipatzea, baina momentu historiko diferenteetako lege esanguratsuenak aipatzen saiatuko gara.

Gorago aipatuenez, curriculumak momentu historiko konkretu batean indarrean dagoen korrante ideologiko eta politikoaren isla da, gobernuek euren ideiak zabaltzeko eta indartzeko erabilitako tresna indartsua. 1945eko Lehen Hezkuntzako legea (Ley de 17 de julio de 1945 sobre Educación Primaria, 1945) eta 1970ko Hezkuntza Lege Orokorrak (Ley 14/1970) horren adibiderik argienetarikoa dira. Izan ere, Francoren gobernu diktatorialak euren ideien hegemonia mantentzen saiatu ziren hezkuntzan arlo konkretu batzuk lantzerantz behartuz, hala nola, hezkuntza nazionala, kultur erlijiosoaren oinarriak, Espainiako errealitate sozial eta kulturalaren ezagutza, mundu fisiko, mekaniko eta matematikoaren ezagutza eta etxeko jardueretarako trebakuntza. Gizarte Zientzien presentzia ukazina da, baina argi dago Gizarte Zientzien irakaskuntza horrek ez zuela gizartearen garapenaren eta askatasunaren alde lan egiten, baizik eta ideia politiko eta kultural faxistak zabaltzearen alde. Horrela, Gizarte Zientzien irakaskuntzaren bidez, gobernuak herria kontrolatu nahi zuen.

Diktaduraren amaierarekin aldaketa sozial eta politiko oso nabarmenak etorri ziren eta horiekin guztiekin batera nola ez, hezkuntza-lege berriak. LOGSE (1990) eta LOErekin (2006) Gizarte Zientzien helburuetan zein edukietan berrikuntza nabarmenak ezarri ziren. Izan ere, aipatutako azken bi lege horietan “Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera” irakasgaiaren helburuak guztiz aldatzen dira. Adibide gisa, LOEn oinarrituta eraikitako Lehen Hezkuntzako curriculumean (Eusko Jaurlaritza, 2010) ikus dezakegu nola Gizarte Zientzien irakaskuntzak herritar kritiko, parte-hartzaile eta solidarioak heztea bilatzen duen. Izan ere, irakasgaiak jorratu nahi dituen gaitasunen artean hauek izango litzateke nagusienak: berezko ezaugarriak dituzten kulturak eta gizataldeak ezagutzea, balioestea eta errespetatzea; Giza Eskubideak errespetatu behar direla gogoratzea; erantzukizunez eta era kooperatiboan jokatzeko ikastea; historian zehar gertatutako aldaketak kritikoki aztertzea eta azterketa horretatik lortutako ezagutza gainerako momentu historikoak ulertzeko aplikatzea; eta azkenik, ingurune arazoak identifikatzea eta konponbideak bilatzeko estrategiak sortzea.

1.2. Gizarte Zientzien irakaskuntza: irakaste-metodologiak eta XXI. mendeko erronkak

“La vida es muy peligrosa. No por las personas que hacen el mal, sino por las que se sientan a ver lo que pasa” (Albert Einstein).

Einsteinen hitzetan egungo gizarteak bizi duen gizatasunik eza iragartzen zen. Egunero, gertutik zein urrunetik, beste milioika gizaki sufritzen ikusten ditugu; baina lehen mina sortzen zigun sufrimendu hori jada normala egiten zaigu. Pobreziaz, heriotzaz eta sufrimenduz inguratuta bizitzera ohitu gara eta horrek halabeharrez, gizateriaren desagerpenerantz eramango gaitu. Baina, nola geldiarazi balaztarik gabeko gizatasun-galtzearen tren? Askoren buruan dagoen galdera da hura, oraindik erantzun eraginkorrik gabeko galdera. Teorian zer egin beharko genuke argi dago: galdu dugun gizatasuna berreskuratu. Gizatasuna gizaki bakoitzaren parte denez, norberak hura berreskuratzeko erantzukizuna duela pentsa genezake. Halere, mundu mailako arazoek mundu mailako irtenbideak behar dituzte eta horretan hezkuntza da tresnarik eraginkorrena. Izan ere, historian zehar hezkuntza identitate ideologiko konkretu bat zabaldu eta indartzeko gai izan baldin bada, zergatik ez erabili indar hori herritarrengan jarrera kritiko, enpatiko, solidario eta parte-hartzailea sustatzeko? Hezkuntza gizatasunaren galera konpontzeko erreminta bihurtu nahi badugu, hezkuntza-sistema bera erabat aldatzeko beharra daukagu.

Lehen aipatu denez, curriculuma ikaste-irakaste prozesuaren oinarri nagusienetariko bat da, non zehazten den zertarako, zer eta zelan irakatsi. Orduan, indarrean egon diren azken bi dekretuetako (175/2007 eta 236/2015) helburuetan gizatasuna berreskuratzeko jarrerak eta balioak agertzen badira, zergatik ez da arazoaren hobekuntzarik sumatzen? Zergatik paperean idatzitakoak ez dauka eragin handirik eskolan eta gizartean? Zertarako eta zer irakatsi Gizarte Zientzietako curriculumean argi azaltzen bada, errua hirugarren galderan izango duela jatorria deduzi genezake, hots, nola irakatsi galderan. Pagésen hitzetan (1994), Gizarte Zientzien curriculum eta metodologia baldintza batzuk bete behar ditu benetan kritikoa eta eraldatzailea izateko. Alde batetik, irakastean ideiak ezin dira estatiko edo aldaezinak bezala agertu; hots, irakasterakoan ideia desberdinen arteko elkarreragina errespetatzea ezinbestekoa da. Bestetik, gatazka sozialek Gizarte Zientzien irakaskuntzan presentzia izan behar dute eta ezin da irakaskuntza ikaslea doktrinatzeko eta eredu ideologiko hedatuena bermatzeko erabili. Azkenik, edukiek ikaslearen esperientzia pertsonal eta sozialarekin lotura estua izan behar dute eta ezagutza edo eduki horiek ez dira soilik Gizarte Zientzien profesionalek esandakoarekin legitimizatzen; hau da, ikasleak berak gertakari sozialak aztertu eta ezagutza propioak eraiki behar ditu.

XX. mendean jadanik Gizarte Zientzien irakaskuntzan ikerketa eta gatazka sozialek presentzia izan behar dutela argi zuten, baina egun erabiltzen diren metodologiak Pagések (1994) aipatutako baldintza horiek guztiak kontuan hartzen dituzte? Porlánek eta Martinek (1994; Porlánek aipatua, 1998) XX. mendearen amaieran, Zientzien irakaskuntza-metodologietan, hurrengo hutsune edo akatsak identifikatu zituzten: hausnarketarik gabe ezagutza zientifikoak ezagutza didaktikoak bilakatzen dira; ezagutza zientifikoaren inguruko ikuspegi absolutu, zatitua eta metagarria sustatzen da; zientziak etika eta gisa-jarrerari egin diezaioketen ekarpenak alde batera uzten dira; ikaslea ezagutzen hartzaile pasibotzat hartzen da; edukiak eta metodologia didaktikoak banatzen ditu, inolako harremanik izango ez balute bezala; ikaste prozesuaren alderdi soziala ez da kontuan hartzen; ebaluazioa tresna zigortzaile bezala ikusten da, normalean ikasleen memorizatzeko gaitasuna neurtzen dela, ez prozesuan garatutako gaitasunak edo barneratutako ezagutzak.

LOGSE, LOCE eta ondorengo hezkuntza legeek aurretik aipatutako hutsuneak betetzeko proposamen metodologiko berritzaileak egin badituzte ere, errealitatea guztiz diferentea izan da eskoletan. Izan ere, Olivak eta Acevedok (2005) Hezkuntza eta Zientzia ministerioarentzako idatzitako txostenean aurretik aipatutako arazoa oraindik presente jarraitzen zuela adierazten dute. Eskoletan liburua eta informazio transmisioan oinarritutako irakaskuntza nagusi dela sumatu zuten eta errealitate hura aldatzeko hainbat hobekuntza proposatu zituzten, hala nola, ikasle-gela barruan zein kanpoan ikerketak eta laborategiko lan praktikoak egiteko aukera ematea, beti ikasleen parte-hartze aktiboa eta kritikotasuna bultzatuz.

Ezinbestekoa da eragile guztiei (hezitzaileak, ikasleak, adituak, familiak...) hitza ematea, paperean hain argi dagoena benetan errealitatean ematen den ala ez jakiteko. Hori da, Gradu Amaierako Lan honen helbururik nagusienetariko bat eta horregatik galdetuko zaie ikasleei, beste aspektu batzuen artean, zelan ikusten duten egun erabiltzen den metodologia eta ea Olivak eta Acevedok (2005) gorago proposatutako berrikuntza metodologikoak paperetik errealitatera igaro diren.

1.3. Gizarte Zientziakiko motibazioa: irakasleengan eta ikasleengan garatu beharreko ezinbesteko gaitasuna

En muchas escuelas impera una situación paradójica; los alumnos se quejan de que la clase es poco interesante, y el maestro se queja de la falta de interés de los alumnos. Cada uno busca el fallo en el otro. En realidad se trata de un hecho único:

de falta de motivación para el aprendizaje. Se da allí donde las actividades que intenta estimular el maestro en la clase, no encuentran eco en los alumnos, no los <<mueven>>, no los motivan (movere significa mover en latín). Donde falta la motivación para aprender, no tiene lugar el aprendizaje. Maestro y alumnos pierden el tiempo. Sería mejor que se dedicara a hacer otra cosa (Aebli, 1991: 113).

Aeblik azaltzen duen bezala, ikasteko motibazioa falta denean, ikasketak ez dauka lekurik ez etorkizunik. Motibazioa hain garrantzitsua da, ezen zenbait autorek ikasleengan zein irakasleengan garatu beharreko gaitasun berritzat aldarrikatzen duten. Perrenouden aburuz (2005), jakinmina eta ikasteko erabakia “motibatzen jakitea” edo estrategia zehatzak erabiltzea baino haratago doa. Izan ere, autore honek honela definitzen du motibazioaren izaera eskolan: “La habilidad didáctica de saber construir el sentido que tienen los conocimientos y comunicarlo es necesaria para acortar la distancia entre éstos y la escuela” (Perrenoud, 2005: 226). Aurreko hitz horiek Gradu Amaierako Lan honen abiapuntura eramaten gaituzte berriro. Perrenoudek (2005) eskolako ezagutzei zentzua ematea ezinbestekoa ikusten du, hots, ikasleei ikasitakoaren funtzionaltasuna erakustea. Hori da, ikaskuntza prozesua aurrera bultzatzen duen gurpila: ikasleek ikasitakoa funtzionala edo erabilgarria ikusten dute, jakinmina pizten da eta ezagutzei atea zabaltzen zaie. Egia da motibazioa hori baino askoz konplexuagoa dela eta bertan beste hainbat faktorek parte hartzen dutela, adibidez, ikasleen izaera edo premiak, baina funtzionaltasuna motibaziorako faktore bat izanda, ikasleengan gaitasun berri hau garatzen laguntzeko aurrerapauso bat suposa dezake. Perrenoudek (2005) motibazioaren gurpila martxan jartzeko, zenbait erronka proposatzen ditu, edozein diziplina edo ezagutza arlorra aplikagarriak izan daitekeenak, hala nola, ikasleak euren ikasketa-prozesuan inplikatzeko, autoebaluaziorako eta autonomiarako gaitasunak garatuz edo ikasleei proiektu propioak eraikitzeko eta aurrera eramateko aukera ematea.

Motibazioaren garrantzia eskolan argi dago, baina zer da motibazioa? Motibazioa giza-prozesu oso berezia eta pertsonala da eta horrek prozesuaren definizioa zailtzen du. Halere, autore askok motibazioa jarrera baten aktibazio, norabide eta iraunkortasunean eragina duten prozesuen multzo bezala definitzen dute (García eta Doménech, 2000). Motibazioa akziora bultzatzen gaitu; horretan datza bere presentziaren garrantzia hezkuntzan. Izan ere, herritar kritiko, parte-hartzaile eta solidario hezi nahi badira, ikasleak ikaste-prozesuarekiko motibatuak egotea ezinbestekoa izango da. Egun, ikasleak modu askotan motiba daitezke eta motibatzen dira, baina motibazio guztiek ez dute iraunkortasun bera. Adibidez, ikasleei nota onak ateratzearekin eta ikasturtea

gainditzearekin motibatzean, baliteke helburua lortzea baina nota ematean ikasteko grina desagertuko da eta berriro beste nota edo sari batekin motibatu behar izango da ikaslea. Aurreko motibazioari kanpoko motibazioa deritzogu eta inportantea bada ere, hainbat autoreek beste bi motibazio identifikatzen dituzte: barruko motibazioa eta motibazio transzendentea. Carrascok eta Baignolek (2004) hurrengo metafora erabiltzen dute hiru motibazio mailak laburbiltzeko: Edukitzearen motibazioa (kanpoko), jakitearen motibazioa (barrukoa) eta ematearen motibazioa (transzendentea). Beste modu batean esanda, hiru multzo nagusitan sailka daitezke ikasleak ikastera bultzatzen dituzten motibazioak edo arrazoiak:

- Ikasteen karrera profesional bat eraiki, dirua irabazi eta erosotasunez bizi ahal delako (kanpoko motibazioa).
- Gauza berriak ikastea zoragarria delako eta ikasteen gero eta gehiago jakingo duelako (barruko motibazioa).
- Ikasteen etorkizuneko gizartean parte-hartzeko eta garapenean laguntzeko gaitasunak garatzen dituelako (motibazio transzendentea).

Hiru motibazio mailak beharrezkoak dira, beti ere norbanakoak hiruren artean oreka bat bilatzen badu. Are gehiago, hiru mailak elkarrekin lotuta daude, hots, batak bestean eragin izan ditzake. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleei hiru motibazioen arteko oreka bilatzen laguntzea. Ezinbestekoa da ikasleek ikustea ikasketak eta dirua izatea bizirauteko garrantzitsua dela; baina ere bai baldintza horiek gizartearen garapenari laguntzea ahalbidetuko diotela, ikasleengan jarrera kritiko eta parte-hartzailea sustatuz eta bizitza osoan zehar etengabe ikastearen abenturaz disfrutatzerantz animatuz (Carrasco eta Baignol, 2004).

1.4. Egungo ikasleen iritzia Gizarte Zientzien irakaskuntzaz: ikerketarako aurrekariak

La enseñanza y el aprendizaje de la historia no responde a aquello que los jóvenes esperan encontrar ni a aquello que algunos creemos que deberían encontrar para orientarse en su mundo, para desarrollar su temporalidad, para formar su consciencia histórica. Los saberes históricos escolares no tienen para el alumnado ningún sentido más allá de las paredes de la escuela. La historia escolar no es capaz de situar al alumnado ante el mundo, no le ayuda a entenderlo, no lo forma como ciudadano ni le da elementos para construir su identidad personal y colectiva (Pagès, 2003: 2).

Gizarte Zientzien didaktikan ikerlari eta aditua den Pagésen hitzetan (2003), historiaren egungo irakaskuntzak ez dio ikasleen premiei erantzuten eta horrela ezinezkoa izango da historiaren eta beste Gizarte Zientzien irakaskuntzaren helburuak gauzatea. Baina, zergatik ikasleek ez diote Gizarte Zientziak ikasteari funtzionaltasunik ikusten? Soilik ikasleek daukate galdera horren erantzuna. Beraz, Gizarte Zientzien ikaskuntza funtzionala eta erabilgarria izatea nahi badugu, ikasleei hitza ematea ezinbestekoa dela argi dago. Horretara bideratzen da Gradu Amaierako Lan honetan aurkezten den lan enpirikoa.

Ikerketa lan hori diseinatzeko, arloan aurretik egin diren ikerketak kontuan hartzea premiazkoa egiten da. Hasteko, Gizarte Zientzien inguruan egin diren ikerketa lan gehienak Historiara mugatzen direla esan beharra dago. Izan ere, Bartonek (2010) gaiaren inguruan egindako ikerketak hiru multzotan sailkatzen ditu: 1) Ikasleek iraganari buruz jakindakoaren eta ezagutza horien artean ezarritako harreman moten inguruko ikerketak; 2) ikasleek froga historikoen inguruan duten ulerkuntza maila eta iraganeko pertsonaien eta gertakarien inguruan eraikitzen dituzten azalpenei buruzko ikerketak; 3) ikasleek historiaren inguruko ezagutzak eta ideiak eraikitzeko erabilitako testuinguru sozialari buruzko ikerketak, batez ere, ikasleen ezagutzaren jatorria eta ikasleen ikasteko premiak ikertzen dutenak. Lan honetan aurrera eramango den ikerketa hirugarren multzoan sartuko litzateke, ikasleen interesak eta egun erabiltzen den Gizarte Zientzien irakaskuntza-metodologiaren inguruko iritzia aztertzen baita.

Ikerketa hirugarren multzo horretan, aipatzekoa da Marbá eta Márquezen (2010) lana. Ikerketa Gizarte Zientziako eskoletan baino, Natur Zientzietako eskoletan zentratzen bada ere, Lehen Hezkuntzako seigarren maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailara arteko ikasleek eskolako zientzien inguruan duten iritzia argi islatzen da. Horrela, ikasleen iritzia aztertuta, hezitzailearen rola eta praktika antolatzea errazago egiten delarik.

Natur Zientzietan ohikoagoa izan arren, Gizarte Zientzien arloan ikasleen ahotsa oraindik ez da behar beste entzun eta gabezia horretan dauka jatorria ondoren azaltzen den lan enpirikoa.

2. ATAL ENPIRIKOA

Atal honetan, lan enpirikoaren diseinua osatzen duten elementu desberdinak zehazten dira, hala nola, helburuak, hipotesiak, ikerketaren parte-hartzaileak, ikerketa-aldagaiak, neurtzeko tresna eta azkenik datuen analisirako erabilitako prozedura

2.1. Helburuak eta hipotesia

Sarreran aipatuenez, Gradu Amaierako Lan honetan aurkezten den ikerketaren bitartez, Lehen Hezkuntza amaitzean dauden ikasleak Gizarte Zientziak ikasteko funtzionaltasunaren eta diziplina hau irakasteko erabiltzen diren metodoen inguruan duten iritzia ezagutu nahi da. Hori jakinda, irakasleok lortu nahi dugunaren eta ikasleek jasotzen eta barneratzen dutenaren arteko aldea identifikatu ahal izango da, herritar kritiko, parte-hartzaile eta solidarioak hezteko bidea errazagoa eginez. Hori da lan enpiriko honen xede nagusia, tartean beste helburu inportanteak ere bete nahi direlarik:

1. Lehen Hezkuntzako ikasleek Gizarte Zientzien funtzionaltasuna ulertzen duten aztertzea.
2. Irakasleek erabiltzen dituzten metodoak eta materialak ikasleentzat motibagarriak diren aztertzea.
3. Lehen Hezkuntzako ikasleek Gizarte Zientzietan duten interesa eta motibazioa aztertzea.

Aurretik planteatutako helburuak abiapuntutzat hartuta eta esparru teoriko eta kontzeptualean bildutako informazioan oinarrituz, hurrengo ikerketa-hipotesia planteatzen da:

- Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek ez diote Gizarte Zientziak ikasteari funtzionaltasunik ikusten, egun erabiltzen diren irakaste-metodologiek ez baitute ikasi beharreko edukien eta ikasleen egungo errealitatearen artean loturarik ezartzen. Hortaz, ikasleak ez dute Gizarte Zientzietan motibaziorik eta ezinezkoa zaie ikustea Gizarte Zientzietan herritar kritiko eta parte-hartzaile hezteko duten helburua.

2.2. Parte-hartzaileak

Hasteko, Gradu Amaierako Lan hau Bilboko ikastetxe kontzertatu batean oinarritzen da. Ikerketa honen bitartez, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek Gizarte Zientziak ikastearen helburu, funtzionaltasun eta ikasteko metodoei buruz zer nolako iritzia duten aztertzeko saiakera bat egiten da, ikerketan oinarritutako zenbait ondorio eta hobekuntza proposamenak eraikiz. Bilboko ikastetxe kontzertatu honetako LHko seigarren mailan 80 ikasle matrikulatuta daude. Datuak biltzeko tresna, hots, galdetegia (ikusteko jo 1. eranskinera), mailako 74 ikasleri pasatu zaie. Izan ere, lagina nahiko handia izateak ikerketaren emaitzak esanguratsuagoak izaten lagundu egin du. Maila honetako ikasleak aukeratu dira, Gizarte Zientzien irakaskuntzarekin esperientzia zabalagoa eta iritzi osatuago bat izan dezaketela uste baita. Horrez gain, Lehen Hezkuntzako etaparen azken mailan ikasten ari direnez, esparru teorikoan azpimarratutako etapa osorako helburu nagusiak betetzear egon beharko luketela suposatzen da.

2.3. Ikerketa-aldagaiak

Galdetegian agertzen diren baieztapenak eta galderak lau interesguneak dituzte, hots, hiru ikerketa-aldagai: Gizarte Zientzietan erabilitako metodologia, Gizarte Zientzietan interesa edo motibazioa eta Gizarte Zientzien helburuak eta funtzionaltasuna.

Ikerketaren helburu nagusia Gizarte Zientzien irakaskuntzaren arlo desberdinei buruzko ikasleen iritzia biltzea denez, ikertu nahi diren aldagai horiek erabiliko dira kategoria bezala, aldagai horiek planteatutako hiru helburuekin lotura estua eta zuzena dutelarik. Lana errazteko, galdetegia osatzen duten item guztiak hiru aldagai horietan sailkatuko dira:

Aldagaiak	Gizarte Zientzien helburuak eta funtzionaltasuna	Gizarte Zientzietan interesa eta motibazioa	Gizarte Zientziak irakasteko metodologia
Item	7; 11; 13; 14; 15; 16;	6; 7; 9; 14; 25; 28;	5; 8; 10; 12; 26

	17; 18; 19; 20; 21; 22; 23; 24; 25; 27; 29	29	
--	--	----	--

1. Taula: Item-en sailkapenerako taula

Halere, hiru aldagaiak zehaztu badira ere, ez dira independenteak, hots, harreman estua dago aldagai baten eta besteen artean. Hortaz, zenbait galdera edo item-ak aldagai bat baino gehiagotan sartzea erabaki da. Izan ere, Gizarte Zientzien helburuak eta irakasteko metodologia eragin oso nabarmena dute ikasleen interes eta irakasgaiaren funtzionaltasunean; eta kontrakoa, interesa eta motibazioak eragina dauka ikasleek diziplinaren funtzionaltasuna ikusteko duten gaitasunean.

2.4. Neurtzeko tresna

Ikerketa hau, ikasleek Gizarte Zientzien irakaskuntzaren inguruan daukaten iritziari buruzko 29 items-ekin osatutako galdetegi bat erantzutean oinarritzen da. Galdetegia bi ataletan banatuta dago. Alde batetik, ikaslearen datuen inguruko 4 item aurkituko ditugu. Bestetik, ikasleen iritzi eta jarreraren inguruko atalean, 25 item aurki ditzakegu.

Galdetegia gaztelaniaz zein euskaraz eginda dago, ikasleek erosoago sentitzen diren hizkuntzan erantzuteko aukera izan dezaten. Horrela, ikasleek galdera guztiak ondo ulertzen dituztela eta zintzotasunez erantzuten dutela bermatzen saiatu da. Galdetegia eraikitzeke, aurretik balioztatutako bi ikerketen galderak hartu eta egokitu dira. Alde batetik, Fuentesen (2004) galdetegia erabili da, non Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek historiaren inguruan duten iritzia aztertzen den; eta bestetik, esparru teoriko eta kontzeptualean aipatutako Marbák eta Márquezek (2010) erabilitako galdetegia ere oinarri bezala erabili da.

2.5. Datuen analisisa

Ikerketan erabilitako tresna kuantitatiboaren bidez (galdetegia) lortutako datu bolumena hain handia izan denez, ezinbestekoa da datu guztien analisisa aurrera eramateko prozedura bat zehaztea.

Kasu honetan, Microsoft Excel programa informatikoa erabili egin da datu guztiak biltzeko eta tratatzeko. Izan ere, programa horren bidez, emaitzen atalean agertzen

diren grafikoak eta taulak sortu dira. Horrez gain, 2. eranskinean datu guztiak biltzen dituen erregistroa osatzeko ere Microsoft Excel programa erabili egin da.

3. EMAITZAK

Atal honetan galdetegietatik ateratako emaitza nagusiak aipatzen dira¹, ondoren ikerketarako planteatutako hipotesia betetzen den ala ez justifikatzeko eta emaitzetatik abiatuz, hezkuntza-praktika hobetzeko zenbait gomendio eraikitzeko. “2.1. Helburuak eta hipotesia” atalean azaltzen denez, hiru dira lortu nahi diren helburu nagusiak eta irakurketa errazteko emaitzak hiru helburu horien arabera banatu dira:

- **1. Helburua: Lehen Hezkuntzako ikasleek Gizarte Zientzien funtzionaltasuna ulertzen duten aztertzea.**

Ondoren, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako 74 ikaslek Gizarte Zientzien irakaskuntzaren benetako funtzionaltasuna eta helburuak identifikatzen dituzten edo ez frogatzen duten datu nagusi batzuk azalduko dira.

	GUZTIZ DESADOS (%)	DESADOS (%)	ADOS (%)	GUZTIZ ADOS (%)
Item 11-GGZZetako eskoletan egiten ditugun jarduerak eta lanak ezagutzak eraikitzen laguntzen didate.	0,00	10,81	45,95	43,24
Item 13-GGZZetako eskoletan ikasten ditudan gauzak nire eguneroko bizitzarako erabilgarriak dira.	1,35	21,62	32,43	44,59
Item 14-GGZZak ikastea garrantzitsua da nire etorkizun profesionalerako erabilgarria izango delako.	2,70	9,45	41,89	45,94
Item 15-GGZZak gizaki eta herritar bezala prestatzen laguntzen didatelako erabilgarriak dira.	0,00	12,16	50,00	37,83
Item 16-GGZZak beste irakasgaiak ulertzen laguntzen didatelako erabilgarriak dira.	12,16	36,48	35,13	16,21
Item 17-GGZZek bizi naizen mundua ezagutzen eta ulertzen laguntzen didate.	0,00	8,10	39,18	52,70
Item 18-GGZZak ikasteak bakarrik azterketak	40,54	35,13	16,21	8,10

¹ Erregistro guztiak irakurtzeko 2.eranskinera jo dezakezue.

gainditzeko balio du eta etorkizunean ez zait erabilgarria izango.				
Item 19-GGZZak ikasteak nire kultura handitzeko balio dit.	0,00	8,10	41,89	50,00
Item 20-Historia eta Geografia ezagutzea garrantzitsua da iraganeko akatsak berriro ez egiteko eta etorkizun hobea eraikitzeke.	0,00	13,51	39,18	47,29
Item 21-GGZZek ez didate lan on bat aurkitzeko balio izango. Ikasi behar dudak irakasgai bat da baina ez dakit zergatik.	35,13	32,43	27,02	5,40
Item 22-GGZZetako eskoletan ikasitakoak balio etikoak garatzen laguntzen dit.	6,75	17,56	60,81	14,86
Item 23-Eskolan guztiok GGZZak ikasi behar ditugula uste dut.	0,00	4,05	48,64	47,29
Item 24-Eskolako GGZZek pertsona kritikoagoa egin naute.	14,86	31,08	45,94	8,10
Item 25-Eskolako GGZZek oraindik ezagutzen ez ditudan gauzekin erlasionatutako jakinmina piztu didate.	1,35	10,81	41,89	45,94
Item 27-Eskolako GGZZek orainaldian gertatzen ari diren gatazka sozialak ulertzen lagundu didate.	0,00	14,86	54,05	31,08

2.taula: 1.Kategoriaren emaitzak (ehunekotan)

Hasteko, lehenengo helburu honekin lotura duten item guztien erantzun orokorrak agertzen dira (2.taula). Galdera guztiak positiboan eginda daudenez, 18 eta 21 izan ezik, adostasun maila handiago batek ikasleek Gizarte Zientziak ikastearen funtzionaltasuna eta helburuak identifikatzen dituztela esan nahi du.

Irudi orokor bat lortu nahian, “Ados” eta “Guztiz ados” balorazio tarteetan emaitzak gehitzen badira, hobeto puntuatutako 3 itemak, hots, ikasleen adostasun handiagoa dutenak, Item 23 (%95,93), Item 19 (%91,89) eta Item 17 (%91,88) dira. Guztiek jaso dute ikasleen %90 baino gehiagoko adostasuna. Beraz, galdetutako ikasleek eskolan Gizarte Zientziak ikastearen beharrarekin, norberaren kultura handitzeko Gizarte Zientzien baliagarritasunarekin eta diziplina hauek mundua ezagutzen eta ulertzen laguntzeko funtzio edo gaitasunarekin ia %100eko adostasun maila adierazi dute.

Desadostasun bi balorazio tarteak (guztiz desados eta desados) gehitu ondoren, desadostasun maila handiagoa jasotzen duten 3 itemak, Item 16 (%48,64), Item 24 (%45,94) eta Item 22 (%24,31) dira. Hau da, galdetutako 74 ikasleei gehiago kostatzen zaie Gizarte Zientziek beste ikasgaiak ulertzeko, pertsona kritikoagoa izaten laguntzeko eta balio etikoak garatzeko erabilgarria dela ikustea.

Aurretik azaldutako datuak egiaztatzeko Item 29-a erabiliko da (3.taula). Izan ere, galdera honetan ikasleei berriro Gizarte Zientzien erabilgarritasunari buruz galdetzen zaie, baina kasu honetan, eskolan lantzen diren beste arloekin erabilgarritasun eskala bat eraikitzeke eta justifikatzeko eskatzen zaie.

3. taulan ikusten denez, Gizarte Zientziak beste ezagutza-arloekin konparatzean eta eskala bat egitean ikasleen adostasuna ez da hain argia. Izan ere, 2. taulan azaldutako emaitza orokorretan ikaslearen gehiengo batek Gizarte Zientzien funtzionaltasun desberdinak identifikatzen dituela islatzen da. Halere, ikasleek Gizarte Zientziak beste zenbait arloekin konparatu behar dituztenean, hauen erabilgarritasunaren maila nabarmen jaisten da. Soilik 4 ikasleek identifikatzen dituzte Gizarte Zientziak arlorik erabilgarrien bezala. Hala eta guztiz ere, 25 ikasle izan dira Gizarte Zientziak erabilgarritasun eskalaren azken 2 tokietan kokatu dutenak.

Item 29-Ordenatu 1-etik 6-ra hurrengo ikasgaiak zure bizitzarako daukan erabilgarritasuna kontuan hartuz. "1" zenbakia erabilgarritasun handiena daukan ikasgaia izango da eta "6" erabilgarritasun gutxien duena. Gero, azaldu labur sailkapenaren zergatia.	
GGZZak "1" zenbakiarekin baloratu duten ikasle kopurua	4
GGZZak "2" zenbakiarekin baloratu duten ikasle kopurua	10
GGZZak "3" zenbakiarekin baloratu duten ikasle kopurua	19
GGZZak "4" zenbakiarekin baloratu duten ikasle kopurua	13
GGZZak "5" zenbakiarekin baloratu duten ikasle kopurua	19
GGZZak "6" zenbakiarekin baloratu duten ikasle kopurua	6
Erantzun gabe	3
Guztira	74

3.taula: Gizarte Zientzien erabilgarritasunaren eskala

Galdera honen bigarren partean, ikasleei egindako sailkapena justifikatzeko eskatzen zaie. Atal honetan era diferentetako erantzunak eta justifikazioak jaso dira. Ikasle gehienek bakarrik lehenengo eta azken postuan egindako aukeraketa justifikatu dute, erdiko postuetan egindako sailkapena alde batera utziz. Ondoren, beste ezagutza arloekin konparatuta, zergatik ikasleek Gizarte Zientziei erabilgarritasun hain argia ikusten ez dioten ulertzen saiatzeko zenbait erantzun aipatuko dira, balorazio mailari erreparatuta:

- GGZZak "1" eta "2" zenbakiarekin baloratu duten ikasle kopurua: Gizarte Zientziak lehenengo postuetan kokatu duten ikasleek hurrengo justifikazioak ematen dituzte: "Porque me parece que así sería mejor ciudadano"; "para tener cultura", "betidanik gizarte gustatu zaidalako eta zure munduko informazioa biltzen duzulako"; "porque las asignaturas más importantes son las que me ayudarán en el futuro".
- GGZZak "5" eta "6" zenbakiarekin baloratu duten ikasle kopurua: Hauek izan dira Gizarte Zientziei erabilgarritasun maila txikiena eman dioten ikasleek emandako arrazoi nagusiak: "hizkuntzak inportanteagoak direlako"; "porque creo que hay que saber más idiomas para el futuro. Las ciencias sociales no me parecen tan importantes"; "nire bizitzarako erabilgarriagoa delako matematikak, ondoren euskara, Euskal Herrian bizi garelako eta ondoren beste guztiak"; "porque las matemáticas sirven para todo y los idiomas cada vez son más importantes", "garrantzitsuak iruditzen direlako matematikak eta hizkuntzak eta gero Natur eta Gizarte Zientziak"; "porque lo más importante son los idiomas para poder trabajar o estudiar en diferentes países".
- **2. Helburua: Irakasleek erabiltzen dituzten metodoak eta materialak ikasleentzat motibagarriak diren aztertzea.**

Gizarte Zientziek herritar kritiko eta parte-hartzaileak heztera lagundu behar dute, txikitatik ideia kontrajarriak errespetuz onartzen, aztertzen eta erabaki propioak hartzen ikasiz. Gradu Amaierako Lan honetan, ikasleen iritziz, metodologiek helburu horiei laguntzen dieten ikertu nahi izan da. Analisiarekin hasi baino lehen, ikasleen gehiengo batentzat Gizarte Zientziak ikasteko errazak direla esan beharra dago. Izan ere, 57 ikasleek ados edo guztiz ados aurkezten dute euren burua "Eskolako Gizarte Zientziak ikasteko errazak dira" baieztapenarekin (Item 8).

Hiru dira metodologiaren inguruko iritziarekin lotura estua duten item-ak (item 10, item 12 eta item 26). 4. taulan ikus daitekeenez, galdetutako ikasleen ehuneko oso altuari, Gizarte Zientzietako eskoletan irakasleek erabiltzen dituzten baliabide materialak motibagarriak iruditzen zaizkie, konkretuki %51,35-ari (ados) eta %24,32-ri (guztiz ados). Halere, eskolak dinamikoagoak izateak ikastera lagunduko lukeen

galdetzean, ia ehuneko ehuna ados edo guztiz ados dago baieztapenarekin, %90,53 hain zuzen ere (Item 12). Azkenik, 26.item-ean Gizarte Zientziek gure bizitzan ikertzearen garrantzia erakutsi dieten galdetzen zaie. Egia da, ikasleen %54,05 eta %32,43 ados edo guztiz ados daudela, baina garrantzi hori ikusten ez duten ehuneko txikia den arren, aipatzekoa da %13,51-k oraindik ez duela garrantzi hori ikusten.

	GUZTIZ DESADOS (%)	DESADOS (%)	ADOS (%)	GUZTIZ ADOS (%)
Item 10-GGZZetako eskoletan erabiltzen ditugun baliabide materialak interesanteak eta motibagarriak iruditzen zaizkit.	0	24,32	51,35	24,32
Item 12-GGZZetako eskolak diamikoagoak izateak gehiago ikastera lagunduko luke.	1,35	8,1	48,64	41,89
Item 26-Eskolako GGZZek gure bizitzan ikerketa zientifikoa duen garrantzia erakutsi didate.	1,35	12,16	54,05	32,43

4.taula: Metodologiari buruzko galderen emaitzak (ehunekotan)

- **3. Helburua: Hezkuntzako ikasleek Gizarte Zientzietatikiko duten interesa eta motibazioa aztertzea.**

Lan enpiriko honetan planteatzen den helburu bat ikasleek Gizarte Zientzietatikiko duten interesa eta motibazioa ezagutzeko da. Horregatik, galdetegian item batzuk eraiki eta aztertu dira, ondoren emaitza nagusiak laburbilduko direlarik.



1. grafikoa: Etorkizunean Gizarte Zientzietako profesionalak izatearekin ados eta desados dauden ikasle kopurua.

Analisiarekin hasteko, aipatu beharra dago galdetutako ikasleen kopuru oso handiak (48 ikasle) ez duela etorkizunean Gizarte Zientzietako profesionala izateko interesik erakutsi (1.grafikoa). Halere, bakarrik 6 ikaslek erakutsi dute Gizarte Zientzietako profesionalak izateko interes osoa.

Etorkizunera begira interesik eza horrek ikaskuntza prozesuarekiko motibazioan eragina duen konprobatzeko 6. itema planteatu da. Aurreko galderan ez bezala, arlo honen irakaskuntzari dagokionez, ikasleen motibazio orokorra asko handitzen da. Izan ere, ikasleen erdia baino gehiagok (50 ikasle) eskolako Gizarte Zientziak motibagarriak direla baieztatzen du. Halere, 9. item-ean ea Gizarte Zientzietako eskolak aspergarriak diren galdetzen zaienean, ikasle kopuru txiki batek (19 ikasle) eskolak aspergarriak direla aldarrikatzen dute. Orokorrean, Gizarte Zientzietako eskolekiko interesa eta motibazioa nahiko zatituta ikusten da, hau da, iritzi kontrajarriak daude (emaitza guztiak 2. eranskinean ikus ditzakezue).

Baina zein motibazio maila da nagusi Gizarte Zientzien ikasleen artean? Ondoren, motibazio bakoitzarekin lotura duten emaitzak azaltzen saiatuko gara (5. taula).

	<i>Ikasle kopurua</i>			
	GUZTIZ DESADOS	DESADOS	ADOS	GUZTIZ ADOS
Item 14-GGZZak ikastea garrantzitsua da nire etorkizun profesionalerako erabilgarria izango delako (<i>kanpoko motibazioa</i>).	2	7	31	34
Item 21-GGZZek ez didate lan on bat aurkitzeko balio izango. Ikasi behar dudak irakasgai bat da baina ez dakit zergatik (<i>kanpoko motibazioa</i>).	26	24	20	4
Item 25-Eskolako GGZZek oraindik ezagutzen ez ditudan gauzekin erlazionatutako jakinmina piztu didate (<i>barruko motibazioa</i>).	1	8	31	34

5. taula: Kanpoko eta barruko motibazioari buruzko emaitzak (ikasle kopurutan)

Kanpoko motibazioari dagokionez, 65 ikaslek (Item 14-an ados eta guztiz ados dauden ikasleen batura) Gizarte Zientziak ikastea bere etorkizun profesionalerako erabilgarria izango dela uste dute. Antzeko fenomenoak ematen da galdera ezezkotan planteatzen denean, 50 ikaslek (Item 21-ean desados eta guztiz desados dauden ikasleen batura) berriro Gizarte Zientziak ikastea lan on bat aurkitzeko baliagarria egingo zaiela defendatzen dutelarik. Baieztapen horretatik ikasle gehienak Gizarte Zientzia ikastera bultzatzen duten motibazioak kanpokoak direla ondoriozta daiteke. Halere, barruko motibazioari buruzko emaitzak ere nahiko positiboak dira. Izan ere, 65 ikaslek (Item 25-ean ados eta guztiz ados dauden ikasleen batura) Gizarte Zientziak ikasteak gehiago ezagutzeko interesa piztu diela uste dute.

Azkenik, esan beharra dago motibazio transzendenteari buruz emaitza gutxiago lortu direla. Hala ere, besteentzako erabilgarria izatearen motibazioa 29. itemean ikasle

batek emandako justifikazioan ageri da. Izan ere, Gizarte Zientziak arlorik erabilgarriena bezala kalifikatu duen ikasleak hurrengo argudio eman du: “porque me parece que así sería mejor ciudadano”. Hirurogeita hamalau ikasletik bakar batek aipatu egin du motibazio transzendentea bere justifikazioan.

Atal honetan azaldutako emaitzak aztertuta, planteatutako hipotesia maila handi batean ezeztatzen dela esan dezakegu. Izan ere, ikasle kopuru nahiko handi batek Gizarte Zientzien funtzionaltasuna ikusten dutela eta eskolan erabilitako metodologiak motibagarriak iruditzen zaiela frogatu da.

4. ONDORIOAK

4.1. Gizarte Zientzien hezkuntza-praktikarako gomendioak

Emaitzen atalean islatzen denez, ezin da baieztatu hasieran planteatutako hipotesia. Halere, atal honetan lan enpirikotik ondorioztatutako zenbait beharrian garrantzitsu azalduko ditugu. Izan ere, argi geratzen da funtzio garrantzitsu batzuk indartu beharko litzatekeela, metodologiari buelta emanez eta ikasleen motibazioa handituz.

Galdetegietako datu guztiak irakurri eta emaitza nagusiak atera ondoren, hortik identifikatutako beharrianak zehaztera pasa gaitezke. Irakurketa errazteko hiru ikerketa-aldagaiak erabiliko dira, aldagai horiek ikerketa lanean planteatutako helburuekin ere lotura estua baitute. Hona hemen aldagai bakoitzaren emaitzak aztertuta identifikatu egin den beharrian edo premia nagusia:

1. Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek, orokorrean Gizarte Zientzien funtzionaltasuna identifikatzen duten arren, beharrezkoa da eskolan diziplina hauek izan behar duten bi funtzio nagusi ikustaraztea eta indartzea, hots, pertsona kritikoagoak izaten eta balio etikoak garatzen laguntzearena.
2. Oliva eta Acevedorekin (2005) bat etorritik, Gizarte Zientziak irakasteko erabiltzen diren metodologiak berritzen jarraitu behar gara. Izan ere, galdetutako ikasleriaren gehiengo batek Gizarte Zientzietako eskolak motibagarriak ikusten baditu ere, dinamismo handiagoa eskatzen dute, dinamismo horrek halabeharrez ikasleen parte-

hartzearen eskutik joan behar duelarik. Beste modu batean esanda, ikasleei euren ikaste-prozesuaren protagonistak egin behar zaie.

3. Aeblik (1991) esandakoari jarraituz, herritar kritiko, parte-hartzaile eta solidario hezi nahi badira, ikasleak ikaste-prozesuarekiko motibatuak egotea ezinbestekoa izango da. Izan ere, motibaziorik gabe ez da ikasketa esanguratsurik egongo. Ikasleen motibazioa iraunkorra izateko, Carrascok eta Baignolek (2004) bereizitako hiru motibazio mailen artean (kanpokoa, barrukoa eta transzendentea) oreka aurkitu behar da. Hau da, ikasleei erakutsi behar zaie Gizarte Zientziak ikastea etorkizun profesional arrakastatsua eraikitzeke eta kultura edo ezagutzak irabazteke ez ezik, gizartearen garapenari lagunduko dion herritar kritiko, parte-hartzaile eta solidarioa izaten ikasteko ere lagungarria dela. Beste modu batean esanda, hiru motibazio mailen artean oreka aurkitzeko asmoz, motibazio transzendenteari garrantzi handia eman behar zaio.

Gradu Amaierako Lan honetan planteatutako ikerketaren emaitzen azterketatik identifikatutako hiru premia nagusiak abiapuntutzat hartuta, hezkuntza-praktika hobetzeko zenbait gomendio didaktiko eraikitzeari ekin ahal diogu. Gomendio horiek baliagarriak izan daitezke etorkizunean Gizarte Zientzien didaktikaren ikerketa eta berrikuntza bidetik jarraitzeko, baita esku-hartze didaktikoak diseinatzeke, inplementatzeko eta ebaluatzeke ere.

“La ciencia en tanto acción humana intencional, trata de contribuir a mejorar el mundo y no sólo el mundo físico, sino también el mundo social y el mundo histórico” (Echeverría, 1995: 46). Ezin dugu ahaztu Gizarte Zientziak zientziak direla, eta beste edozein zientzia bezala ardatz nagusi bat dutela: esperimentazioa eta ikerketa. Ezin da zientziari buruz hitz egin ikerketari buruz hitz egin gabe eta alderantziz. Aurreko ideiatik abiatzen da lehenengo gomendio didaktikoa: ikasleei Gizarte Zientziak esperimentatzeko aukera zabalak eskaintzea, non ikasleek era autonomoan fenomeno sozial desberdinak ikertuko dituzten, bitartean egungo mundua hobeto ezagutzeko eta pentsamendu kritikoa garatuz. Proiektua izan daiteke aurreko lana gauzatzeko metodologiarik aproposena. Izan ere, La Cueva unibertsitate irakasleak (1998) proiektuari buruz eraikitako definizioarekin bat etorritik, proiektuek betetzen duten baldintza garrantzitsua ikasleen parte-hartze aktiboarena da, ikasleak proiektuaren planteamenduan, diseinuan zein garapenean protagonistak eta erabaki-hartzaileak direla. Ikaslea prozesu osoaren jauna eta jabe eginez, bere motibazioa handitzen

lagunduko dugu; eta behin baino gehiagotan aipatu dugunez, motibazioa da ikaskuntza martxan jartzen duen gorpila. Laburbilduz, proiektua esperimentazio aukera zabalak eskaintzeko marko metodologikorik aproposena izango litzateke, ikasketa enpirikoa eta kontsulta bibliografikoak konbinatu eta arlo sozialean eragina izango duten aldaketarako akzioak edo proposamenak barne har ditzake eta.

Behin irakaskuntza hobetzeko marko metodologikoa aukeratuta, Gizarte Zientzien helburuak edo funtzioak garatzeari lagunduko duten gaiak aukeratu behar dira. Horretara bideratzen da bigarren gomendio didaktikoa: ikasleen eguneroko bizitzan edo gizartean pil-pilean dauden gai edo arazo sozialak aukeratzea. Irakaslearen helburuen edo ikasle-taldearen arabera, ikasleei gaia edo arazo soziala aukeratzeko autonomia handiagoa edo txikiagoa eman ahal zaie. Halere, gomendagarria izango litzateke ikasleek mundua eta gizakion akzio eta arazoak hobeto ulertzea eta hobekuntza proposamenak egitea ahalbidetuko luketen gaiak aukeratzea. Horrela, Gizarte Zientzien ezagutza arlo desberdinez baliatuz (geografia, historia, ekonomia, politika...), egungo mundua ezagutu, barneratu eta eraldatzeko lehenengo saiakerak egin ahal izango dituzte, euren gaitasun kritiko, parte-hartzaile eta solidarioa poliki-poliki garatuz.

Hirugarren eta azken gomendio didaktikoa hurrengo esaldian dauka oinarria: “Nunca es demasiado tarde para corregirse, porque después de nacer como humano lo más importante es aprender a ser humano” (Sagar Prakash Khatnani). Hezitzaile bezala, ezin dugu ahaztu zein izan behar den egunero geletan sartzera bultzatu behar gaituen helmuga. Hezitzaile bezala, Sagar Prakash Khatnani Espainiako idazlearen aurreko hitzen eskutik sartu behar gara egunero gelan. Ezagutzak transmititzea eta ikastea inportantea dela argi dago. Halere, ez bagara gai ezagutza horiek etorkizun hobearen eraikitzearen alde erabiltzeko, eskolara joateak bere funtzioa galduko du. Beraz, izan dezagun beti presente hezkuntzaren helbururik nagusia pertsonak heztea dela, helburu hura izango baita bide osoa gidatuko duen lema.

4.2. Zailtasunak eta ikerketarako bide berriak

Historian zehar, zientzialari eta pedagogo ugari hartu dute Gizarte Zientzien irakaskuntza aztergaitzat, gizarteratze eta elkarbizitza egoki bat lortzeko testuinguru sozial, historiko, geografiko, politiko, etab. aztertzen eta eraldatzen ikastearen garrantzia azpimarratuz.

Ildo horretatik, Gradu Amaierako Lan honetan aurkezten den lan enpirikoa Gizarte Zientzien hezkuntza-praktika hobetzeko ekarpenak egiten saiatu da. Halere, ikerketa zientifiko guztietan bezala, prozesuan zehar zailtasunak aurkitu dira. Zailtasunik nabarmenena galdetegiak pasatu ostean eta analisiari ekin egin zaionean agertu da, 7. itema baloratzeko ezintasuna agertu denean. Galderaren formulazioa ez da argia izan eta horrek ikasleen erantzunak kategorizatzea eta analizatzea zaildu egin du. Izan ere, 6.item-ean ikasle bakoitzak zer erantzun duenaren arabera, bi egoera planteatzen dira, Gizarte Zientziak motibagarriak iruditzen zaizkien ikasleak eta motibagarriak iruditzen ez zaizkien ikasleak. Halere, 7. item-ean ez zegoen egoera hori aurreikusita. Hortaz, galderaren formulazioan ez zaie ikasleei argitzen motibagarriak iruditzen bazaizkie edo ez bazaizkie, zenbaki bakoitzak duen balioa. Horregatik, arazoa ikusita eta emaitzak fidagarriak izan daitezen, 7.itema analisirako kontuan ez hartzea erabaki egin zen.

Argi dago aurrera eramandako ikerketak ez duela Gizarte Zientzien irakaskuntzaren arazo guztiak ebatziko, baina lanean planteatzen diren gomendio zabal eta malguetatik Lehen Hezkuntzako maila eta ezaugarri diferenteetako taldeentzako proposamen didaktiko berritzaileak eraiki daitezke. Azken horretan identifika dezakegu etorkizunean ireki daitekeen ikerketa eta berrikuntza bidea. Behin, Lehen Hezkuntzako ikasleek Gizarte Zientzien helburu, funtzionaltasun, motibazio eta metodologiei buruz duten iritzia aztertuta eta azterketa horretatik ondorioztatutako gomendio didaktikoak abiapuntutzat hartuz, esku-hartze edo proiektu bat diseina, inplementa eta ebaluatuko genuke. Ebaluazio horrek proiektu edo esku-hartzearen inplementazio ostean ikasleen iritzietan aldaketak eman diren ikertzea ahalbidetuko luke. Kasu honetan, bildutako informazioa sakonagoa eta esanguratsuagoa izan dadin, neurtzeko tresna kuantitatiboak (galdetegia) eta kualitatiboak (elkarrizketa) konbinatuko genituzke. Tresna kuantitatiboari dagokionez, galdetegia hobetzeko beharra argi dago. Izan ere, etorkizunera begira planteatzen den ikerketarako galdetegian, era desberdinetako galderak planteatuko genituzke, non ikasleek adostasun maila adierazteaz gain, aukera diferenteen artean hautatu behar izango luketen. Horrela, 7. item-arekin gertatutakoa saihesten saiatuko ginbateke. Bestetik, galdetegiaz gain ikasle lagin bati elkarrizketak egiteak emaitza kuantitatiboak osatzen lagunduko luke, hezkuntza-praktikaren ikuspegi zabal eta fidagarriagoa emanez.

Laburbilduz, ikerketa bide berri horrek Gizarte Zientzien irakaskuntzaren hobekuntzan beste aurrerapauso bat suposatuko lukeelakoan gaude, paperean hain argi dagoena praktikara eramaten lagunduz.

5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- 175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa. *Boletín Oficial del País Vasco*, 218, 26035-26074.
- 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. *Boletín Oficial del País Vasco*, 141, 1-268.
- Aebli, H. (1991). *Factores de la enseñanza que favorecen el aprendizaje autónomo*. Madril: Narcea S.A. Ediciones.
- Benejam, P. (1999). El conocimiento científico y la didáctica de las Ciencias Sociales. In. Asociación Universitaria del Profesorado de Didáctica de las Ciencias Sociales, Un currículum de Ciencias Sociales para el siglo XXI: qué contenidos y para qué. *Actas del X Simposium de Didáctica de las Ciencias Sociales (Universidad de La Rioja. Logroño, 23 al 26 de marzo de 1999)*. (orr. 15-25). Sevilla: Díada.
- Carrasco, J. eta Baignol, J. (2004). La Motivación. In Carrasco, J. eta Baignol, J. (2004). *Técnicas y recursos para motivar a los alumnos*.(orr.28-50). Madril: Ediciones Rialp.
- De Camilloni, A. R. W. (1994). Epistemología de la didáctica de las Ciencias Sociales. In. en Aisenberg, B eta Aderoqui, S. (comps.). *Didáctica de las Ciencias Sociales. Aportes y reflexiones*. (orr. 25-41). Buenos Aires: Paidós.
- Echeverría, J. (1995). Nuevas corrientes en la filosofía de la ciencia. In. Echeverría, J. (1995). *Filosofía de la ciencia*. (orr. 11-50). Madril: Akal.
- Eusko Jaurlaritzak. (2010). Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzen duena (testu moldatua) 2016-05-17an hartuta, hemendik:
http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=c46b61d2-be04-41f0-b022-ad4383869cd9&groupId=635622
- Fuentes, C. (2004). Concepciones de los alumnos sobre la historia. *Enseñanza de las ciencias sociales: revista de investigación*, 3, 75-83.
- García, F. J. eta Doménech, F. (2000). Motivación, aprendizaje y rendimiento escolar. *REME. Revista Electrónica de Motivación y Emoción*, 1, 55-65. 2016-04-30ean hartuta, hemendik: <http://reme.uji.es/articulos/pa0001/texto.html>
- Hernández Cardona, F. X. (2002). *Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia* (Vol. 169). Bartzelona: Graó.

- La Cueva, A. (1998). La enseñanza por proyectos: ¿mito o reto?. *Revista Iberoamericana de educación*, 16, 165-190.
- Ley 14/1970, de 4 de agosto, General de Educación y Financiamiento de la Reforma Educativa. *Boletín Oficial del Estado*, 187, 12525-12546.
- Ley de 17 de julio de 1945 sobre Educación Primaria, 1945. *Boletín Oficial del Estado*, 199, 385-416.
- Magendzo, A. eta Toledo, M. (2009). Educación en Derechos Humanos: Currículum Historia y Ciencias Sociales del 2º año de Enseñanza media. Sub unidad "Régimen militar y transición a la democracia". *Estudios pedagógicos*, 35 (1), 139-154.
- Marbá, A. eta Bargalló, C. M. (2010). ¿ Qué opinan los estudiantes de las clases de ciencias? Un estudio transversal de sexto de primaria a cuarto de ESO. *Enseñanza de las ciencias: revista de investigación y experiencias didácticas*, 28(1), 19-30.
- Oliva, J.M. y Acevedo, J.A. (2005). La enseñanza de las ciencias en primaria y secundaria hoy. Algunas propuestas de futuro. *Revista Eureka sobre Enseñanza y Divulgación de las Ciencias*, 2(2), 241-250.
- Pagés, J. (1994). La didáctica de las ciencias sociales, el currículum y la formación del profesorado. *Signos. Teoría y práctica de la educación*, 13, 38-51.
- Pagés, J. (2003): Ciudadanía y enseñanza de la historia. *Reseña de Enseñanza de la Historia*, 1, 11-42.
- Perrenoud, P. (2005). Diez nuevas competencias para enseñar. *Educatio Siglo XXI*, 23, 223-229.
- Porlán, R. (1998). Pasado, presente y futuro de la didáctica de las ciencias. *Enseñanza de las Ciencias*, 16(1), 175-185.
- Wallerstein, I. M. (1996). La construcción histórica de las ciencias sociales desde el siglo XVIII hasta 1945. In. Wallerstein, I. M. (1996). *Abrir las ciencias sociales: informe de la Comisión Gulbenkian para la reestructuración de las ciencias sociales*. (orr. 3-36). Madril: Siglo xxi editore.